

LUR-BERRI EGITE ETA TOPONIMIA MENDEBALEKO ETA ERDIKO EUROPAN: FLARAN-EKO 8GARREN IXTORIO EGUN INTERNAZIONALAK

Donostia, 1986-XI-28

*Jean-Baptiste Orpustan
Bordele-III Unibertsitatekoa*

1986-eko buruilaren 19, 20 eta 21-etan iragan dira, zortzigarren aldi-kotz. Flaran-eko Abadiako zentro kulturalean, Gers-eko departamenduan eta Gaskoiniaren erdi-erdian, zortzigarren Ixtorio Egun Internazionalak. Horien buru eta antolatzaile, Charles Higounet, Bordele-III Unibertsitateko irakasle emerito eta Akitaniako ixtoriolari aipatua.

Aurtengo gaia hau zen: “Toponimia eta lur-berri egiteak Erdi-Aro eta Aro Berrian, mendebalaleko eta erdiko Europan”. Bi egunez egin dira hamabortz bilkura eta hitzaldi, eta bertze hainbertze elkarrizketa; mintzatu, luzaz edo labur, Bordeleko, Tolosako, Paueko eta Korzikako ikertzaileak Frantzia Hegoaldetik, Pariseko, Normandiako eta Zaboiakoak Ipar eta Ekialdetarik; bai eta ere Italia, Ingalterra, Alemania, Polonia eta azkenik Tranzialbaniakoak.

Ainitz lan beraz eta hoberenatarik, oro frantsesez, leku ezin ederra-goan: Flaran-eko abadia Zizterzianoek eraiki zuten XII mende azkenean. Inguruan hor ditu hiri, bastida, monumento, bazter ikusgarriak: Auch, departamenduko hiri nagusia, Aro-Zaharreko Elimberris (erran dezagun Irunberri edo Iriberr...); Eauze, Erromanoen Elusa; Condom, Bossuet predikari aipatua ukan zuena apezpiku zenbait urtez. Orotan katedrale, eliza, erromaniko eta gotiko, etxe zahar, jauregi eta gazteluak. Eta oihan, arto-landa, ardantz, ahate eta antzera multzoen artean, etxalde eta herriak, bere armañaka, ardo, ahateki eta gibel gizenduekin...

Ezta, baitezpada, halako jauzia ingurumen atseginezko hortarik, lur-berri egiteak utzi dituen leku-izenetaraino; azken egun osoa, igandea, bidaia batek betetzen zuen, Auch-etik abiatuz, Gimont-eko bastidaren ikusteko.

Luze laiteke, Flaran-en eztabadatu direnek toponimia ikertzaileari ekarri dioten gauza berri guzien aipatzea. Biltzen ditut bakarrik hemen

ohar batzu, ene iduriz toponimia ikerketan aitzinatze agerienak eman dituzten lanetaz.

Ch. Higounet-ek hastetik erran duenaz, lehen aldia zen Ixtorio Egun horietara hizkuntzalariak ere gonbitatuak zirela. Nola mintza toponimiaz, egia erran, bereziki toponimia zaharraz —eta zenbat eztugu huntarik Euskal-Herrian!—, hizkuntzazko neke zorrotzen aitzinean noiz nahi gertatu gabe, ala fonetika, ala morfologia, ala etimologia? Azken huntarat itzuliko naiz urrunago.

Ixtorioak du atxiki lekurik handiena Flaran-en, ezta hortaz harritze-korik; beraz hizkuntzalaritzari heldu da, geroko urtetan ere holako gaiak berriz hautatzen badira, behar duen leku osoaren hartzea. Erran den bezala, toponimia zaharrea bederen, ixtorioak eta hizkuntzalaritzak behar baitute hurbiletik elgar lagundu eta argitu.

1. Hizkuntzatik hasiz, zein dira, leku-izenetan, lur-berrien izendatzeko erabili diren hitzak? Noiz eta nun? Bakoitzak behar zuen, bere sailean eta herrialdetan, galde horien erantzuna eman.

Hiztegiak, P.H. Billy, *Nouvelle Revue d'Onomastique*-aren buruzagiak azpimarratu du argi-argia ez dela errex, toponimia zaharrea, lur-berritze-ari lotuak diren hitz horien ezagutzea, bere ezberdintasun eta itxura guzietan. Erakutsi du Frantziako toponimian hiru mail orokor hunkitze dituztela: 1ik basa-landare eta zuhaitz izenak, 2ik lurraren hartze eta zabal-tzearenak, 3ik zuhaitz ebakitze, errotik ateratze eta eremaitearenak. Egia da behar direla oraino, hitz horiek ezagutu ondoan, Ch. Higounet-ek ohart-arazi duen bezala, kronologia batean sartu.

Gehienek hitz edo erran-nahi berak agert-arazi dituzte bakoitzak bere hizkuntzetan.

A. Petracco Sicardi andere Genobako Unibertsitatekoak agertu du, adibidez nola Italia Iparraldean hiru hitz mota erabili diren Erdi-Aro lehenean eta artekoan, erran nahi dutela 1. zuhaitz aurdikitzea, 2. su emaita (eta orroitu gira, euskaraz ere, *labaki* hitzak bere erroa *labe* duela iduriz), 3. egur eta erroen ekentzea.

Gauza iduriak erakutsi dituzte bertze zenbaitek ere: D. Fournier-ek Normandiako Auge herrialdean, S. Lefèvre andereak Parise inguruan, J.A. Cancellieri-k Erdi-Aroko Korzikan.

Frantzia osoan, bi hitz ditu lur-berritzeko toponimia zaharrak ardu-renik erabili: Iparraldean *essart* (latinetik datorrena), *artigue* Hegoaldean eta gehienik Akitanian. R. Fossier Parise-I Unibertsitatekoak ikertu du lehenbizikoaren hedadura Parisetik goitiko eskualdetan; erakutsi ere nun huts egiten duen, nun den, aldiz, usuenik agertzen; eta gauza horien arrazoinak aztertu, ohart-araziz ezte, gaur egun, lehenagoko lur-berritzek

utzi hatzik izen horietaz bertze, eskualde guzia ogi eta beterraba landek aldatu eta berdindu baitute.

Egunen idekitzeko ongi-etorria egin ondoan, Ch. Higounet-ek zabaldu zituen oren oso batez, *artigue* hitzaren berezitasunak, eta lehenik noiz eta nun agertzen den: 817-ko “Louis-le-Débonnaire” enperadore karolingianoaren emaitza batetik haste; eta, Akitania guzian aurkitzen bada, usuenik Euskal-Herri inguruan; handik harat, gero-ta-gutiago, Frantzia Erdiko mendietaraino aitzinatuz Iparraldetik, Languedoc-aren mugetaraino Ekialdetik.

Hastetik, Ch. Higounet-ek emanak zituen hitz horren etimologiaz diren iritziak: zeltikotik datorrela diote zenbaitek, latinetik bertzek; badira ere euskarari buruz itzuli direnak, eta lehen-lehenik G. Rohlf's zena (egun hautan zendua) *Le Gascon* bere lan berdingabea.

Barkatuko zauta hemen parentesia labur hau. Zenbaitek uste dute oraino hizkuntzaren itxorioaz —toponimia zaharra baita gure hizkuntzaren aro zaharra argi dezakeen gauza bakarra, eta, zorionez, aberatsa— mintza daitekeela etimologia baztertuz. Iritzi bitxi hau entzun dut, bai Gasteizeko Toponimia jardunaldietan (aurtengo jorrailean), bai Donostiako Uda-Unibertsitatean (agorril azkenean). Etimologia, eta bereziki toponimiarena, den baino zailago eta gaixtoagoa balitz ere, nihundik eztaiteke ez bazter ez ahantz: hobeki, hura dugu toponimia aztertzeko, eta orokorkiago gai huntaz nahi badugu zerbait zuzen jakin eta erran, lehenbiziko lana eta beharrena.

Ch. Higounet-ek bere hitzaldia bururatu zuen erranez, haren ustez, hitz horrek (*artigue*) euskaran eta Euskal-Herrian dukeela bere iturburua; eta hortik daitekeela Okzitalia guzian hegatu. Itzuli zitzaukun orduan hor ginen Euskalduneri buruz, galduz zer zen gure ikuspegia.

J.L. Lizundia Euskaltzaindiko Idazkari ordeak zitatu zituen *artiga* eta horren iduriko izen batzu Hegoalde eta Bizkaia inguruko leku-izenetan, erranez haren ustez, hitz horiek, bertze zenbait bezala, erromantzetik sartuak zaitezkeela Erdi-Aroan. Azpimarratu nuen, ene aldetik, Euskal Iparraldeko toponimia zaharrak etzuela hitz hori ezagutzen, baina bai *arte* edo *arta* (eta Xuberon *tarte*: ohar *Tartas* hango etxe izenari), zuhaitz eta berro izena, erdaraz “*chêne-vert, buisson*”, eta hortaz egin izen batzu (*Artaberro* eta bertze...); *arteaga* (“arteak diren lurra”) gelditu da oraino Nabarrako hiztegi arruntean. Badaiteke erro edo hitz hortarik egin dela *artigue*, erran-nahia aldatuz: ez gehiago “zuhaitz edo berro lekua”, baina “holako lekuetan lur-berritzeko egiten den lana”. Ahantzi gabe, menturaz Akitaniako hizkuntza zaharretik gelditu dela, berantetik erromanizatu diren lekuetan gehienik, erran nahi baita Euskal-Herri ondoan. Lur-berritzen izenak hurbiletik ikertzekoak dira gure toponimian ere:

gauza hortaz Iparraldeko Erdi-Aroko izenetan, idatzi dut beraz ohar labur bat, Flaran-eko egunez eginen den liburuan agertuko dena.

2. Noizkoak dira lur-berritzeak utzi dituen toponimoak? Lurrak “labakitu” dira, Iparraldean erraiten den bezala, edozein aroetan; G. Celhay-Lizotte andereak egin zuen, adibidez, lan kartografiko eder eta xehe bat Aro-Berriko “tretytis” lur-berrituez Biarnoko aldean. Bainan ikertzaile gehienek Erdi-Aroa zuten hautatua: bada hor dokumento aski —ez orok nahi bezenbat eta ez orotan berdin—, ainitz berezitasun eta ezberdintasun ere.

Zenbait lekutan jendek, eliza-gizon, jaun edo laborari, goizik hartua eta landua zuten oihan eta basa-landaren eremu zaharra: Italia Iparraldean lur-berritzen hiztegia Lonbardoan arokoa da (VIII-IX-garren mendetan); guti dira hor XI-XIII-garren mendetako izenak, eta berantagorik batere ez. Inglaterrako Midlands-etan, eremu osoaren % 29-ak oihan ziren V-garren mendean; Normananoen aroko (XI-garren mendean) oihana jautsia zen % 20-ez beheiti, eta lekuka % 5-etaraino; artean *felden* lur-berritu izanak, ibar eta azkenik herri bilakatuak. Erran gabe doa lur-berritzearen hiztegia bera ere, aldatua zela mendez mende.

Gehienetan alta, eta Midlands-etan berdin, XII-XIII-garren mendeak izan dira lur-berri egiteko aro ezagutuenak. J.A. Cancellieri Korte-ko Unibertsitatekoak erran dauku, Korzikian ere Erdi-Aroan hasi bazen lur-berritzea, berantago egin dela ainitz lekutan (oraino XVIII eta XIX-garren mendetan), berezitasun bat bezala erakutsiz gaztenaren sartzea eta landatzea XIII-XIV-garren mendetarik hunat.

Aroak eztitu bakarrik hitzak aldatu, bainan hitz beren erran-nahia. X. Ravier Tolosako Unibertsitatekoak ikertu ditu Marciac-eko bastidaren eraikitze dokumentakoak XIII-garren mende azkenean. Eraikitze hori emaiten dute gaixtaginen (“spelunca latronum et malificiorum”) haizatzeko estakuru; bizkitartean baziren hor jadanik ainitz herri, etxalde eta lur lantu. Hortarik ageri da lur-berritze eta toponimiaren inguruan ezagutu behar direla zenbait aldiz mito eta topiko batzu. Ikertzaileari dago jakitea noiz eta nun leku-izenek hartzen dituzten holako erran-nahi bereziak.

3. Flaran-en erakutsi diren lan hoberenak eta estimatuenak izan dira lurraz jabetzearen (eta segurki toponimiak jabetze horien hatz ainitz badaduka) ixtorioak galdatzen dituen metodologia bereziak hobeki erabili dituztenak. Erran nahi dut gauzak diren bezala, dokumentuen eta toponimiaren arabera, ikustera eman dituztenak, bere hitzaldi eta erakusketen laguntzeko erakutsiz mapa, marrazki eta argazkiak.

Alde hortarik, ikusgaia entzungaia bezain aberatsa eta zuzena ukanez, A. Fox Leicester-eko Unibertsitateko jaun irakaslearen lana ezin hobeki antolatua zen eta ohargarria: hitzak guti eta zuzen, “humore”

ingeles berezi hartaz doi bat apainduak, argazki diapositibo eder ainitzez argituak. Orok ikusi dute metodologia moderno eta segur baten abantail guzia ixtorioa, geografia eta hizkuntzalaritza elgarrekin galdatzen dituen gai hortan. Esku zarten indarretik aski ageri zen orok bazakitela zenbat ikerketa eta lan segurak behar ziren holako erakusketa baten aitzinean.

Azkenik erraiteko, zalantzarik gabe, ikerketa sail hortan urrats handi eta berri bat egin da Flaran-eko egunetan. Iragarri daukute jarraikiko direla heldu den urtetan: agian ba, ixtorioa eta toponimia elgarrekin emanez hemendik goiti eginen diren balio hortako lanek ainitz ekar baitezakete bi jakitate horietan.

NOTE sur le vocabulaire du défrichement en toponymie basque médiévale au Nord des Pyrénées

Remarque liminaire. Cette étude est limitée à la toponymie d'habitat (pays, agglomérations et domaines ruraux), la seule à être suffisamment (et abondamment) documentée au Moyen Age, et au territoire des actuelles trois provinces du Nord: Basse-Navarre, Labourd et Soule. Or on sait depuis longtemps, et davantage depuis les derniers travaux de Joan Coromines, sur la toponymie catalane et occitane, que la langue basque ou les langues anciennes apparentées au basque actuel, en se retirant des territoires pyrénéens et aquitains au profit des langues romanes, a ou ont laissé de très nombreux vestiges toponymiques.

Introduction

L'abondance de la documentation toponymique basque médiévale contraste avec la rareté des textes suivis antérieurs au XVI.^o siècle: pour le seul domaine des trois provinces actuelles, sont connus par de nombreuses citations non seulement les 250 à 260 noms de pays et vallées, et de hameaux, quartiers et paroisses, ces derniers souvent regroupés aujourd'hui dans les communes modernes, mais encore plus de 3.500 noms de domaines ruraux et maisons (dont l'étude linguistique et historique a été le sujet de ma thèse d'Etat en 1984), parmi lesquels se retrouvent un certain nombre de noms des hameaux et paroisses (des domaines nobles surtout, et quelques autres). Je cite pour mémoire, puisque je n'en parlerai plus, une microtoponymie surabondante, parcelle par parcelle, quelquefois documentée elle aussi dès le Moyen Age.

Dans cet ensemble, les principaux éléments lexicaux pouvant faire allusion à des défrichements me paraissent être les suivants:

1. L'adjectif *berri* "neuf" et ses dérivés;

2. Une partie des toponymes composés dans lesquels entre ce mot *berri*;

3. Peut-être (et ceci demande encore discussion) le radical du mot moderne *labaki*, qui veut dire “terre en friche travaillée pour la mise en culture”;

4. Des mots pouvant se référer indirectement au défrichage, moins aisés à identifier.

Avant de passer rapidement en revue ces quatre catégories, je signale que tous ces noms sont documentés au plus tard vers 1400, mais que les tous premiers documents de la région, qui sont du X.^e siècle et surtout du XI.^e, et en faisant abstraction des très rares mentions assez incertaines des géographes et auteurs antiques, contiennent déjà de tels toponymes.

1. *Berri*: “neuf”, et ses dérivés.

Ce mot entre dans une série de termes toponymiques où la finale *-i* est peut-être la marque d'une ancienne dérivation adjectivale, comme *gorri* “rouge”, *sarri* “épais” et en toponymie “fourré, broussailles”. Il n'est jamais employé seul, mais avec un certain nombre de suffixes, un peu comme le français “nouvelline” auquel ces toponymes doivent correspondre:

- *Berio*: domaine médiéval bas-navarrais (pays de Cize); le nom est composé, comme d'assez nombreux toponymes basques archaïques, du radical *berri* et d'un suffixe *-o*, inconnu de la langue moderne (depuis les premiers textes écrits importants du XVI.^e siècle tout au moins) et dont le sens ne peut être précisé. Les toponymes de même morphologie ne sont pas rares et certains sont répandus: *Luro* (radical *lurr* “terre”), *Elorrio* (radical *el(h)orri* “aubépine”), *Zabalo* (radical *zabal* “terrain plat”), *Arbero* (radical *arbel* “ardoise”) etc...

- *Berriaga*: domaine médiéval bas-navarrais (pays de Cize); ici le thème *berri* s'adjoint un des suffixes locatifs les plus répandus de l'ancienne toponymie et du lexique basques, *-aga*, à valeur déterminée et au sens très vague de “lieu, territoire”. On peut admettre le sens de “le territoire du défrichement”.

Dans la plupart des toponymes basques anciens, comme dans ceux-ci, le nom évoque très directement la configuration, la destination agricole, la nature géologique et surtout végétale du terrain ou de ses environs immédiats, ce terrain étant, pour les domaines, plus précisément celui où est édifiée la maison rurale: ainsi, sur le même modèle que *Berio*, *Garro* (maison noble du Labourd) évoque, par le fameux radical pré-indo-européen, le sol rocheux et élevé.

• *Berriotz* (domaine noble du Labourd, l'un des 60 à 70 domaines de damoiseaux ("domicellus") qui formaient la noblesse de cette province): la terminaison *-otz*, l'une des plus abondantes et des plus commentées de la toponymie aquitaine, y compris basque, admet deux explications: si le thème le permet, il peut s'agir du nom-adjectif *hotz* "froid", comme dans *Ithurrotz* "fontaine froide", nom de domaines et d'un hameau souletin; à la rigueur "défrichement exposé au froid" est acceptable, puisque ce domaine est dans un versant tourné vers l'Est. La deuxième explication, et s'agissant toujours de thèmes géographiques en toponymie basque, et non d'anthroponymes comme le pensait G. Rohlf's (voir pas exemple *Le Gascon*, p. 29-33), renvoie à un suffixe basco-aquitain archaïque, *-os* ou *-osse* en graphie romane, diphtongué en *-uès* au Sud des Pyrénées, dont on ne sait si le sens est fréquentatif ("abondance de") ou seulement locatif ("lieu de"): le second paraît mieux convenir ici.

Il n'y a aucun nom d'agglomération construit sur ce seul mot *berri*. Mais on le retrouve en dehors du domaine que j'ai retenu ici (noms de villages et maisons du Nord des Pyrénées), soit dans la répétition des mêmes noms (*Berriaga*, *Berrioçar* ou *Berriozahar* "vieux défrichement"), soit avec d'autres suffixes (*Berras*, *Berridi*, *Berriz*: quelquefois *berro* "taillis, buisson" peut se confondre avec le radical *berri*).

* * *

2. **Berri "neuf", élément de noms composés.**

Le plus évident de ces composés où *berri* peut faire allusion à des défrichements, est le très ancien et très connu *Iriberry*, qui était entre autres, dit-on, le nom antique d'Auch (je ne rappellerai pas plus longuement que le nom de la cité aquitaine des *Auscii* est peut-être de même radical que celui des *Uascones*...), phonétiquement latinisé en *Elimberri*.

Sa traduction exacte en basque ancien, où *iri* est l'équivalent du latin *villa* "domaine rural", et par extension rapide "habitat", enfin depuis le Moyen Age "ville" (*Iriberry* est alors systématiquement traduit *Villanova* en navarro-aragonais et *Biellenabe* en gascon), est "domaine nouveau". Très curieusement, ce nom est porté soit pas des domaines particuliers écartés de toute agglomération (comme beaucoup d'autres composés de *iri*), nobles ou non, soit par des agglomérations, assez petites toutefois (de 5 à 10 maisons et domaines), dans les vallées bas-navarraises de Cize et d'Ossès, où une maison particulière, (noble en Cize, franche en Ossès), probablement la plus ancienne, porte le même nom. Il s'agit de peuplements très anciens, puisque le hameau de Cize est l'un de ceux où tous les domaines médiévaux étaient nobles "depuis

toujours” (1350), et que les deux noms sont documentés dès le XII.^o siècle.

Il est probable que c'est encore le même nom qui a donné en Labourd Saint-Pierre-d'Irube, documenté d'abord *Yruber* (1170), le radical *iri* prenant aussi la forme *iru* et même en zone méridionale *uri* et *uli*.

Je ne crois pas en revanche qu'il faille attribuer à de nouvelles fondations faisant suite à des défrichements, sauf exception, le plus répandu de tous les toponymes médiévaux basques: *Etxeberri* “maison neuve”, cette appellation ayant dû être le plus souvent et étant du reste encore la conséquence des réédifications périodiques des maisons.

L'allusion à un défrichement est plus probable, quoique très indirecte, quand le nom *Etxeberri* est donné non à une seule maison, mais à une agglomération groupant plusieurs domaines: ainsi *Etcharry* en Soule (ce nom de village se répète au Sud de la frontière), contraction par haplogogie du composé régulier *etxaberry* ou *etxabarri* (assimilation vocale). Dans ce cas le nom doit être compris “habitat nouveau”, avec un sens ancien de *etxe* à peu près synonyme de *iri*, et l'allusion au défrichement ayant précédé la fondation — si toutefois une fondation est toujours précédée d'un défrichement, ce qui paraît probable dans nos régions à végétation dense — peut être perçue.

Le nom *Lecumberry* ou *Lekunberri* contient une référence qui me semble nettement plus précise: c'est *leku-berri* littéralement “lieu nouveau”, avec une anticipation nasale de la bilabiale propre à la toponymie basque (et qui a peut-être des antécédents dans les inscriptions antiques d'Aquitaine). C'était au Moyen Age, outre le village de la Haute-Navarre bien connu, un nom de domaine de Cize. Plus tard, les hameaux cizains de *Janitz* et *Latartza* (aujourd'hui noms de quartiers) ont aussi reçu le nom de *Lecumberry*, peut-être à la suite de quelque mise en valeur post-médiévale.

Il est certain qu'il y a quelque difficulté à clore la série des composés de *berri* pouvant nommer des fondations ou des peuplements nouveaux: par exemple un nom de domaine labourdin (à Cambo) comme *Olhaberryaga* peut se comprendre comme “lieu de la nouvelle cabane” (*ol(h)a* étant documenté dès le XII.^o siècle au sens de “habitat temporaire pour la saison des pâturages”) ou “lieu du défrichement de la cabane”; on ne sait pas si *ol(h)a* avait dès le Moyen Age le sens de “forge”, ce qui exclurait ce nom de notre liste. Je n'ai pas rencontré l'expression moderne *lur-berri* “terre neuve” (nom d'état civil *luberryaga*) en toponymie médiévale du Nord des Pyrénées.

3. Le terme *lab(e)* en toponymie et le mot moderne *labaki*.

Le mot *labaki* du lexique moderne, qui a réellement le sens de “défrichement” et parfois “brûlis, écobuage”, ce qui nous rapproche

aussi semble-t-il du moderne *labe* “four”, pose de difficiles problèmes d’étymologie; or dans ce domaine le basque, pourtant sans conteste la plus vieille langue d’Europe occidentale, et peut-être justement pour cette raison, a l’immense désavantage de ne posséder encore aujourd’hui aucun dictionnaire étymologique sérieux, ni même aucun travail partiel d’étymologie qui soit entièrement fiable. Vous me pardonnerez donc cette brève prospection étymologique, avec tous les risques qu’elle comporte.

Le mot le plus proche étant le commun *labe* “four”, on peut supposer que *labaki* est avec la même dérivation que de *behi* “vache” à *behiki* “viande de vache” (c’est à dire “boeuf” en français...) “ce qui sert au four, bois pour le four”: effectivement, c’est à de tels usages que devait être utilisée la basse et moyenne végétation tirée des terres défrichées.

Mais on peut supposer aussi que *labaki* est composé avec le segment locatif *-oki*, très bien identifié en ce sens en toponymie ancienne, et qu’on trouve dans le lexique moderne sous la forme *toki*, après fixation de ce qui n’était d’abord qu’un phonème (consonne dentale) de liaison ou de transition des composés, devenu autonome et infiltré dans le lexique moderne à partir des dialectes méridionaux (Dechepare et Oyhénart l’ignorent encore aux XVI.^o et XVII.^o siècles). Il serait tout à fait naturel qu’un composé *lab(a)-oki* ou *lab(e)-oki* se soit assimilé en *labaki*. Ceci dégage un radical *lab(a)* ou *lab(e)* qui a pu avoir le sens de “défrichement”, peut-être plus ou moins lié à celui de *labe* “four”, par exemple par l’intermédiaire du procédé de brûlis et écobuage, dont j’ai dit que c’était l’un des sens de *labaki*.

Si je pose ce problème ainsi, c’est que la toponymie basque présente quelques noms composés sur le radical *lab-*, où j’ai senti quelque difficulté à admettre toujours l’acceptabilité du sens moderne de “four”.

Le plus important de tous ces composés est *Lapurdi* (documenté ainsi en 1110), nom basque du *Labourd*, dont on connaît la forme antique latinisée *Lapurdum* (qui ne veut rien dire en latin) et ses dérivés (*laburdensis* etc), en gascon médiéval *Labort*. Or ce nom étant imperméable à toute autre analyse, je proposerais volontiers par hypothèse un composé de *lab-* et de *urd(a)*, terme toponymique basco-aquitain très bien identifié au sens probable de “plateau, terrain plat surélevé”: cf. par exemple le toponyme basque et pyrénéen *Urdo*s et beaucoup d’autres de même radical. Si cette hypothèse était acceptable, ce qui reste à démontrer, le *Labourd* serait “le plateau des défrichements”.

Dans le pays de Mixe, on trouve le village de *Labets*: avec le même radical, le suffixe est soit le collectif *-tz*, soit *-etz*, qui entre dans la série des suffixes archaïques à vocalisme divergent *-etz*, *-atz*, *-its*, *-otz*, *-utz*, extrêmement nombreux en toponymie basque surtout dans des noms

d'analyse difficile en raison sans doute de cet archaïsme, et abondamment commentés par J. Hubschmid.

Voici maintenant les noms de domaines médiévaux:

- *Labairi* en Basse-Navarre (Baigorri): “domaine du défrichement, brûlis, four (?)”;

- *Labaritz* en Labourd, avec (*h*)aritz “chêne”;

- *Labarte* à Bassussarry, village labourdin tard défriché selon les documents, avec *arte* “situé entre” (cependant le mot gascon *barthe* n'est pas exclu dans cette zone);

- *Labeaga* (documenté au XII.^o siècle), maison noble de Saint-Palais en Mixe, qui doit être “territoire du four” ou “du défrichement”.

En dehors de la toponymie d'habitat du Nord des Pyrénées, ce radical apparaît assez souvent: *Labaien*, *Labaka*, *Labaki*, *Labao* (cf. *Berio*), *Labarrieta* (avec le dérivé (*h*)arrieta “lieu de pierres”)...

- *Erre* “brûlé apparaît très peu: peut-être *muga-erre* a fait *Mouguerre* et une maison de Beyrie en Mixe est appelée *Conbusta*, “brûlée” en latin.

4. Il serait beaucoup plus long et difficile encore de rechercher, dans la masse de milliers de toponymes anciens, ceux qui désignent un défrichage plus indirectement. Voici tout de même quelques brefs exemples.

- *Lanevieille*, en basque *Landazahar* et parfois semble-t-il anciennement en traduction intégrale (puisque le gascon *lane* et le basque *landa* sont le même emprunt au celtique *landa* par l'intermédiaire du bas-latin) *Larrezahar*, était une maison noble de Mixe: or cette appellation de “vieille lande” paraît évoquer un ancien espace inculte sur lequel a été défriché le domaine en question.

Je ne saurais dire si le mot *larre* “lande inculte servant éventuellement au pâturage libre des animaux”, employé seul où en composition dans d'innombrables toponymes, soit pour des domaines particuliers, soit pour des agglomérations (Larribar, Larriebieu, Larrory, etc.), se réfère de même ainsi à un espace d'abord inculte et en friche, ou s'il faut l'entendre toujours par rapport aux caractéristiques géographiques d'un territoire plus vaste que l'espace mis en valeur et cultivé, dont on sait bien qu'il était réduit à peu de parcelles ou à de petites pièces à l'intérieur d'un même domaine. Il est probable que, selon les lieux, et sans qu'on puisse le préciser aujourd'hui, ces noms peuvent se référer ou ne pas se référer à un réel défrichement.

- Beaucoup de toponymes basques ont ainsi un élément lexical qui nomme une végétation sauvage qu'il a fallu probablement éliminer pour

la mise en valeur même partielle d'un domaine, à plus forte raison d'un ensemble de domaines. Je cite rapidement quelques-uns de ces termes: *sarri* "fourré, broussailles", à peu près de même sens que *berro* (*Irissarry* commanderie de Malte et village de Basse-Navarre), noms d'épineux comme *laharr*, *satarr*, *gaparr* "ronce", *elhorri* "aubépine", *arrantz* "prunellier", *andarrai* "églantier" et *arrai* "épineux", et encore *ilharr* "bruyère" (village d'*Ilharre* en Mixe), *goro* et *gorosti* "houx", *ira* "fougère", et des végétaux comme *urritz* "coudrier", *ametz* "tauzin", *arta* et en Soule *tarta* (cf. *Tartas*) "chêne-bert, buisson", etc... dont la liste est difficile à limiter. Je citerai encore trois noms: *xara* "bosquet, taillis", qui a donné le nom de *Sare* en Labourd (le bourg médiéval comprenait plus de 75 domaines), *oihan* "forêt" dans les nombreux domaines (plusieurs nobles) dénommés *Oihanarte* "au milieu de la forêt" et aujourd'hui loin de toute forêt en général, et enfin *baso* de même sens: celui-ci a donné le nom de *Bassussarry* "forêt épaisse", dont un document du XII.^e siècle nous apprend que c'est le nom qu'on donna à un village officiellement nommé en gascon, langue administrative de la vicomté de Labourd, *Bilenabe* ou "ville neuve". Il me semble qu'ici, entre le nom basque et le nom officiel gascon, il y a peut-être le défrichement.

* * *

Pour conclure très brièvement, je résumerai les remarques précédentes en deux points: d'abord, l'ancienne toponymie basque d'habitat (et ces observations ne sont pleinement valables que pour l'ancienne toponymie, car les mêmes modèles toponymiques ont pu être reproduits à toute époque par simple imitation et sans rapport avec la signification concrète des noms réutilisés), paroisses et hameaux ou domaines particuliers de toutes catégories, semble bien, par divers procédés d'appellation, se référer à l'acte du défrichement. Ensuite, et plus indirectement, de nombreuses références à certains types de végétation "sauvage", par eux-mêmes plus ou moins incompatibles avec la mise en valeur (cultures et édifices) paraît indiquer que les toponymes ont pu être inventés au moment même de ces mises en valeur, à une époque —ou à différentes époques comme le rappelle le nom *Iberri*, par exemple— bien antérieure à la documentation médiévale, mais évidemment impossible à définir avec plus de précision.